

HELDU DEN AZAROAREN 17KO KONTZEJU HAUTESKUNDEETARAKO AGINDUAK

Irailaren 23ko 235/2019 Foru Dekretuak, irailaren 23ko NAO n (189. zk) argitaratu zenak, kontzejuetako hauteskunde partzialen deialdia egin du maitzeko hauteskundeetan hautagaitzak aurkeztu ez ziren kontzejuetan. Hauteskundeak datorren azaroaren 17an egingo dira.

Kontzeju hauteskundeetan martxoaren 16ko 12/1991 Foru Legea bete beharko da, Nafarroako Kontzejuetako hauteskunde prozesuak arautzen dituen (35. NAOa, martxoaren 20koa).

Duzuen populazioarekin, presidenteak eta lau kidek osatutako batzordea da zuen kontzejuari dagokion gobernu araubidea, non ez diozuen heldu Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean aurreikusitako aukerari, zeinak bide ematen baitu, Batzordeak gehiago osoz hartu badu erabakia kontzeju hauteskundearen deialdia egin baino lehen, kontzeju ireki gisa eratzeko, betiere Foru Komunitatearen Administrazioari jakinarazi ondoren.

Ondoren, argibide gehiago emanen ditugu hautagaitzak aurkezteari eta hauteskunde prozesuari beste alderdiei buruz.

1.- HAUTAGAI ZERRENDAK AURKEZTEA

Alderdiez, koalizioez eta alderdien federazioez gain, beren hautagai-zerrenda aurkez dezakete hautesle-elkartek ere. Azken horiek udalerriko hautesle-errolan izena emana duten hautesleen sinadura-kopuru bat behar dute, eta sinadura horiek notarioak egiaztatuko ditu, edo, kontzejua zer udaletan dagoen, horko idazkariak. Elkartearen hautagaitza abalatzeko sinaduren kopuruak gainditu behar du izena emandakoen %1, baina ezin da 10etik beherakoa izan.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan xedatuarekin bat, alderdiek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkartek ezin dute hautagaitzarik aurkeztu, baldin eta judizialki legearen kontratatzat jo eta desegin edo bertan behera utzitako alderdi politiko baten jardunari jarraitzen badiote edo hura ordezkatzeko badute. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da funtsezko antzik dagoen hautagaitzak zuzendu, ordezkatu edo administratzen dituzten pertsonen egituren, antolamenduaren eta funtzionamenduaren artean, edo finantza bideen edo baliabideen jatorriaren artean, edo beste edozein gauza aipagarriak badagoen, jarraipen hori ordezkatzeko hori badagoela pentsatzeko bide ematen duenik, hala nola indarkeria edo terrorismoa babesteko jarrera.

Hautagai-zerrendak urriaren 9tik 14ra bitarte aurkeztu behar dira, biak barne, zein bere Eskualdeko Hauteskunde Batzordean. Kasu guztietan, hautagaitza aurkezteko idazkiak honako hauek jaso behar ditu:

- a) Argi eta garbi adierazi behar dira alderdiaren, federazioaren, koalizioaren nahiz talde sustatzailearen izena, siglak eta ikurra.**
- b) Gehienez bost hautagairen izen-abizenak.**

- c) Hautagaiak hautagai-zerrenda onartzen dutela dioen aitordpena.
- d) Hautagaiak hautagarriak direla egiaztatzen duen dokumentua.
- e) Hautesle-elkarteen kasuan, aipatutako sinadura kopuruaren ziurtagiria (10 gutxienez).
- f) Hautesle-elkarteen kasuan, **hautagai-zerrendaren ordezkarien izendapena.**

Ordezkariaren eginkizunak izanen dira:

- Hauteskunde-mahaietarako artekariak izendatzea eta akreditatzea. Izendapena hauteskundeak baino hiru egun lehenago arte egin daiteke. Artekaria izateko, hauteslea izan eta hautesle-eroldan izena emanda egon behar da. Nolanahi ere, beste hauteskunde batzuetan ez bezala, ez da nahitaezkoa izanen izena emanda egotea beren eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutiko eroldan.

Aurrekoarekin bat, izena emanda ez badaude bere eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutian, eskualdeko hauteskunde-batzordeak eskatu beharko dio Hauteskunde Erroldaren Bulegoari hautesle-eroldan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria premiazotasunez igortzea, salbu eta artekari izendatua izan denak aldeztu aurretik aipatu ziurtagiria erakusten badu.

Hauteskunde Batzorde Zentralaren urtarrilaren 23ko 1/2019 Aginduarekin bat, zeina artekariaren botoari buruzkoa baita hauteskunde-prozesu batzuek batera egiten diren kasuetan, artekariak zer mahaitan dauden akreditaturik, horretan eman beharko dute botoa, baldin eta, betiere deitutako prozesu guztietan bozkatu behar duen hauteskunde-barrutiaren barnean badago mahi hori, eta hori betetzen ez bada prozesuetako batean, posta bidez bozkatu beharko du guzti-guztietan.

Urriaren 16an argitaratuko dira NAOan aurkeztutako hautagaitza guztiak.

Urriaren 22an argitaratuko dira, NAOan ere, onartutako hautagaitzak.

2.- HAUTESKUNDE KANPAINA

Hauteskunde-kanpainak hamabost egunez iraunen du, ostirala den azaroaren 1eko gauerdiko zeroetatik ostirala den azaroaren 15eko gauerdiko hogeita lauak arte. Epe horretatik kanpo, debeku da ezein hauteskunde-propagandaren ekintzarik egitea.

Era berean, ezingo da hauteskunde kanpainako ekitaldirik egin larunbata den azaroaren 9ko gauerdiko zeroetatik igandea den azaroaren 10eko gauerdiko hogeita lauak arte, datozen hauteskunde orokorretako hausnarketa egunei eta bozketaren funtzionamendu egokiari oztoporik ez egiteko.

3.- BOZKETA ETA ZENBAKETA

Kontzeju hauteskundeetan, udal hauteskundeetarako eratutako mahai beretan egiten da bozketa.

Ondorio horietarako, udal hauteskundearen mahaia bakarra bada, bertan eginen da udalerriko kontzejuei dagokien bozketa ere, eta, horretarako, hautestontzi bana izanen dute kontzejuek.

Bat baino gehiago badira hauteskunde-mahaiak, hautesle banaketa bera izanen du kontzejuei dagokien bozketak, eta, horretarako, kontzeju bakoitzak bere hautestontzi berariazkoa izanen du mahai bakoitzean.

Bozketa goizeko bederatzietan hasiko da, eta arratsaldeko zortziak arte iraunen du, etenik gabe.

Bozketa sekretua da, eta hautesleak lau boto eman ditzake gehienez aurkeztu eta onartu diren hautagai guztien artean.

Hauteskunde-mahaietan egiten den zenbaketa publikoa da, eta zenbaketa horren akta bete behar da, hauteskunde-legediak ezarritako terminoetan.

Lehendabizi, udal hauteskundearen zenbaketa egin behar da, eta, bigarrenaz, kontzeju hauteskunderi dagokiena, kontzejuen hurrenkera alfabetikoari jarraikiz.

Eskualdeko hauteskunde-batzordeak izanen du zenbaketa orokorra eta hautagai hautetsien izendapena egiteko eskumena.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Federazioaren web orrian jaso dezakezue (www.fnmc.es).
“Hauteskunde Partzialak” izeneko atalean hauteskunde-egutegia aurki daiteke, bai eta hauteskunderi buruzko hainbat informazioa ere, unean-unean eguneratuko dena.